XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

1825

2/2026 DEKRETUA, maiatzaren 4koa, lehendakariarena, zeinaren bidez dolu-aldi ofiziala deklaratzen baita Eusko Jaurlaritzako lehendakari Carlos Garaikoetxea Urriza jaun txit gorenaren heriotza dela-eta.

Gaur, 16:30ean, Eusko Jaurlaritzako lehendakari Carlos Garaikoetxea Urriza jaun txit gorena hil denez, dolumin-seinale gisa,

XEDATZEN DUT:

Dolu-aldi ofiziala deklaratzea Euskal Autonomia Erkidegoan maiatzaren 4ko 16:30etik maiatzaren 6ko (asteazkena) 23:59ra. Aldi horretan, bandera ofizialak haga erdian jarriko dira.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Dekretu honek sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko maiatzaren 4an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.